



elkarrekin konpostatu dugu?

2. urteko emaitzak eta ebaluazioa



LEZO ongizate iraunkorra



Lezoko Unibertsitateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua


1. PARTAIDEAK
2. JARRAIPENA
3. KOMUNIKAZIOA
4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK
5. HEMENDIK AURRERAKO HOBKUNTZAK
6. HOBARI FISKALEAN ALDAKETAK
7. BALORAZIOA



1. PARTAIDEAK

Auzo-konposterako guneetako partaideen bajak eta sarrera berriak kudeaturik gaur egun orotara, **84 bat familia** ari dira bere biohondakina konposta-guneetan konpostatzen.

- 🌱- Andreoneko puntuan, 24 familia.
- 🌱- Aralarko puntuan, 18 familia.
- 🌱- Arretxene-Txulotxoko puntuan, 18 familia.
- 🌱- Lopene puntuan, 8 familia
- 🌱- San Pedro-Pisbe puntuan, 8 familia
- 🌱- Altamirako puntuan, 8 familia



2. JARRAIPENA

Aurten jarraipen bisitak hileroko maiztasunarekin egin dira:

Bisita hauetan pausu hauek jarraitu dira:

- 👣 Gunearen eta tresnen egoera orokorra aztertzea
- 👣 Konpostagailuak ireki eta tenperatura neurtzea
- 👣 Iraulketa/nahasketa egin da eta konpostatzeko egoki ez diren zatikiak atera dira
- 👣 Behar izatekotan, egituratzailea bota edo ureztapena egin da, hezetasun-maila orekatzeko.
- 👣 Egituratzailearen egoera aztertu eta beharrak antzeman dira
- 👣 Kudeaketarako beharrezkoak diren ekintzak gauzatu dira: heltze-faserako konpostagailuaren itxiera eta konpostaren leku aldaketa, oharrak jartzea, etab.
- 👣 Erabiltzaile berriei harrerako tailer praktiko bat eman zaie konposta gunean bertan, oinarrizko erabilera jarraibideak azalduz.



3. KOMUNIKAZIOA

- Erabiltzaileekiko komunikazioa errazteko eta konpostagailuetan atzemandako intzidentziak eta zuzenketa-beharrak modu zuzenago batean helarazteko gometxa bidezko kode bat sortu da eta gune bakoitzean zintzilikatu da:




GOMENDIOAK ETA GOMETXAK / CONSEJOS Y PEGATINAS

KONPOST ONA LORTZEKO ETA ARAZO EZBERDINAK EKIDITEKO GOMENDIOAK (kiratsa, karraskarien presentzia, ...)

CONSEJOS PARA LOGRAR UN BUEN COMPOST Y EVITAR DIVERSOS PROBLEMAS (Malos olores, presencia de roedores,...)

Ondo nahastu
Mezclar bien



Zati handiak ekidin
Evitar trozos grandes



Egituratzaillea soilik behar
denean erabili
Usar estructurante sólo
cuando sea necesario



Komunikazioa erraztu
nahian, kolorezko gometxak
erabiliko ditugu

Para facilitar la
comunicación utilizaremos
pegatinas de colores

Materia organikoa falta. Geldi
Falta materia orgánica. Parado

Hobeto nahastu
Mezclar mejor

Egituratzailerik ez bota
No echar estructurante

Zati handiegia
Trozos demasiado grandes



3. KOMUNIKAZIOA

- 👣 Erabiltzaileekin telefono eta eposta bidezko harremana mantendu izan da sorturiko intzidentzi zehatzagoen inguruan hitzegiteko.
- 👣 Erabilpen ezagatik edo erabilpen txarragatik erabiltzaileekin behin eta berriz harremanetan jarri eta egoerak hobera egin ez duen kasuetan, bidali beharreko mezuak gutun formalen bitartez helarazi dizkio udalak. Aurrez asistentzia teknikoak emailez edo/eta telefono deiak eginez jakinarazi zaie
- 👣 Jarraipen bisiten egunen deialdiak emailez jakinarazi dira eta gunean egutegi bat zintzilikatu da.



lezokonposta@gmail.com



943 521 538 (Josu)


605 757 687 (Leire)

4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK

Jarraipen bisitetan, egoerak orohar hobera egin duela esan behar da. Hala ere, oraindik badira hobetu beharreko puntuak:

1. **Konpostagailuak oso heze** topatu ditugu azken hilabeteen, egituratzailea erabiltzen hasteko eskatuko diegu erabiltzaileei. Egituratzailea falta izan da Andreonen, Aralarren eta Arretxenen.
2. **Nahastea:** Batzuek konpostagailuko edukia oraindik **ez dute ondo nahasten**, horrek, edukiaren trinkotzea, usteltzea edo sagutxoak azaltzea ekarri du.
3. **Hondakin organikoaren ekarpenik gabe** jarraitzen dute konpostagailu batzuk. Hau da, badira izena eman, baina parte hartzen ez duten familiak.
4. **Sagu eta arratoiak:** Urtean zehar saguen presentzia jaisten joan da, oraindik ere banakako batzuk agertzen badira ere.
5. **Sabotajea:** Konpostagailu batzuetan hausturak eragin edo zatiak ebatsi dituzte. Bestalde, batez ere San Pedroko gunean, zabor ugari aurkitu izan da eremuaren barruan, eta sarritan zabor poltsak agertu dira hutsik zeuden konpostagailuen barruan.
6. **Guneen egoera:** hainbat gunetan belarra luzeegi, adarrak gunea oztopatzen, etab. topatu dira. Bestetik, gunetan kokatutako zaborrontziak gainezka topatu dira.


4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK




4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



5. HEMENDIK AURRERAKO HOBEKUNTZAK

Antzemandako intzidentziak nolakoak diren ikusita, Udalak honako hobekuntza-neurriak jarri ditu abian:

1. Egituratzailerak Sanmarko Mankomunitatetik ekartzen zen eta, 2016an, Udalaren kimaketetatik lortutako egituratzailerak erabili da, behar izan denean. Hau mantentzeko beharra ikusten da.
2. Konpostagailuen barruan egituratzailerak gutxiago agertzeko hartutako neurriak egokiak izan dira. Hauekin jarraituko da, hau da, soilik teknikariek beharrezko ikustean.
3. Jarraipena egiten duten eta parte-hartzen ari diren familien arteko komunikaziorako gunean bertan egiten den komunikazio-sistemeekin (gometxak, oharak, ...) eta
4. Izena eman eta konpostagailua erabiltzen ez duten familiak identifikatzen jarraitu eta, aldaketarik ematen ez badute, konpostatzetik atera.
5. Konposta ateratzeaz familia bakoitzak egin beharko du kargu.

6. HOBARI FISKALEAN ALDAKETAK

Udalak moldaketak egin berri ditu hondakinei dagozkien ordenantza fiskalean. Aurrerantzean honela erregulatuko dira konposta egiteagatik jasotzen diren hobariak:

ETXEKO KONPOSTA: Beren jabetzako lurretan materia organikoa autokonpostatzen duten etxebizitzek (bai landa eremuko etxebizitzetan baita herri-gunekoetan ere) zabor bilketa tasaren **%40ko hobaria** izango dute.

AUZOKONPOSTA: Udalak egokitutako eremuetan auzokonposta proiektuan parte hartzen duten etxebizitzek kasuan:

1. Zabor bilketa tasaren **%40ko hobaria** izango dute, **betiere Udalak konposta kutxa hustu behar ez duenean ezta sortutako konposta bere erabilerarako prestatu ere.** Parte-hartzaileek konposta erabili behar ez badute, Udalari eman ahal izango diote galbahetu eta zakuetan bildu ondoren.
2. **Udalari konposta kutxa hustutzeko eskatzen dioten etxebizitzek** zabor tasaren **%20 hobaria** izango dute.
3. **Konposta prozesua gaizki egin dela baieztatzen den kasuetan edota konposta kutxan materia organikoaren ekarpenik egon ez den kasuetan,** betiere auzokonposta proiektuaren jarraipen txostenetan oinarrituta, etxebizitza horiei Udalak **hobaria kentzea** erabaki ahal izango du.

7. BALORAZIOA

Izandako oztopoak izanda, bi bete igaro ondoren, Udalak egiten duen balorazioa positiboa da:

- 🌱 Egun **82 familia inguru ari dira auzo-konpostean** (241 pertsona, herriko biztanleen %5 ia), beraz, iazko 95 familietatik 13 familiek programa utzi dutela esan beharra dago.
- 🌱 Bestalde, gune guztien erabilera ez da berdina: Alde Zaharreko edo Arretxeneko guneen erabilpena %100koa da, baina San Pedro eta Altamirako esaterako, %50aren azpitik kokatzen da. San Pedrok duen egoera kaxkarra izanik, 2 familia soilik ari dira ondo konpostatzen.
- 🌱 **Konposta heldu zaien konpostagailuak 14** izan dira eta hauetako **2 hustu dituzte erabiltzaileek beraien erabilerarako.**
- 🌱 Egun parte-hartzen duten familietako kide kopurua kontuan izanik eta pertsonako 0,25kg. biohondakin sortzen direla estimatuz, **urte honetan 22.000 kilo inguru Lezon bertan konpostatzera bideratu direla esan daiteke.**
- 🌱 Gainera, hondakin organiko hauek sortutako tokian bertan kudeatu direnez, hauen bilketari egotzitako joan-etorriengatik sortutako Berotegi Efektuko Gasen isurpenak ere murriztu egin dira.

Mila esker eta hurren arte!

